

17. Hilabeteko Iruzkina
2009ko Azaroa



EU 2020
EUOPAR BATASUNAREN ESTRATEGIA BERRIA

Aurkezpena

EU 2020 etorkizuneko estrategiari buruzko kontsulta baten oinarri izango den lanerako dokumentu bat argitaratu du Europako Batzordeak. Estrategia hori egungo Lisboako Estrategiaren ondorengoa izango da, erronka berriei aurre egiteko berrituko duena.

Europak ezagutzen oinarritzen den, konektatua dagoen, ingurumenarekin arduratsua den eta inklusiboagoa den, modu azkar eta jasangarrian hazteko gai den eta enplegu-tasa altuak eta gizarte aurrerakuntza sortzeko gai den ekonomia gisa lidergoa izatea, lehiatzea eta hobetzea da Batzordearen helburua.

Dokumentuari buruzko iruzkinak eta iradokizunak bidaltzeko epe-muga 2010eko urtarrilaren 15a da (EU2020@ec.europa.eu). Batzordeak udaberriko Europako Kontseiluari proposamen xehatua egingo dio.

Jarraian, sintesi moduan Estrategiaren ezaugarri nagusiak azaltzen dira. Gipuzkoaren ikuspegi-tik estrategia honek duen aplikagarritasuna/eraginaren analisisa jasoko du hurrengo hileko ohar-rak.



17. Hilabeteko Iruzkina 2009ko Azaroa



• Erronkei aurre egiteko mugak

Ekonomia zentzudunagoa eta ingurumenarekin arduratsuagoa dena erdiesteko xedearekin, beharrezkoa da gizarte, ekonomia eta ingurumeneko helburuak elkarren osagarri izatea, lehiakortasuna sendotze aldera koordinazio politikoa indartu ahal izateko.

Hauek dira datozen urteetarako dokumentuak planteatzen dituen mugak eta baldintzak:

- Baliabide publikoen murrizketa

Defizit publikoen beharrezko murrizketak gastua helburuetara bideratzea eskatzen du. Zentzu honetan, hezkuntza edo ikerketa bezalako esparru estrategikoetan murrizketak egiteak zailago bihurtuko luke helburuak erdiestea.

- Industria eta ekonomia alorreko lehiakortasun berria

Produktibitatea areagotzean oinarritzen da, energiaren, natura-baliabideen eta lehengaien erabilera eta babesa hobetzearekin batera.

- Zahartze-prozesuan dagoen gizartea

Enplegu-tasen handitze azkarra, gizonezkoen nola emakumezkoen kasuan, eta gizarte-babeserako sistemen modernizazioa, zahartze-prozesuan dagoen gizarte baten erronkei aurre egiteko tresna gisa.

- Gizarte-kohesiorako politika berriak

Langabeziari heldu eta gizartean inklusioa indartzeko helburuarekin, lan-merkatuen funtzionamendu egokia uneoro bermatuz.

Horretarako, hezkuntza-sistemak eta lan-merkatuak birmoldatzea beharrezkoa da. Era berean, mugikortasuna indartzea eta Europaren dinamismoa piztea, sormenari eta berrikuntzari dagokionez gure indarrari ahalik eta etekin handiena ateratzeko.



17. Hilabeteko Iruzkina 2009ko Azaroa



• EU 2020: hiru lehentasun

Estrategiaren ezaugarri nagusiak hiru lehentasunari, estrategia beraren eragile nagusitzat jotzen direnak, eta giltzarri diren hainbat elementuri lotuta daude.

Lehentasunak

- Hazkundera ezagutzan oinarrituz balorea sortu
- Gizarte inklusiboetan herritarren papera indartu
- Ekonomia lehiakorra sortu, konektatua dagoena eta ingurumenarekin arduratsuagoa dena

Elementuak

- Ezagutzarako sarbidea pertsona guztientzat
- Unibertsitateak, ezagutzaren eta hazkunderaren benetako eragileak
- Ikerkuntza alorreko ahaleginak areagotzea
- Berrikuntza eta sormenerako baldintza erakargarriagoak
- Anbizio handiko agenda digitala
- Enplegu berriak, gaitasun berriak
- Bizitzan zeharreko ikaskuntza
- Gizarte-babes egokia
- Kultura ekintzaileagoa
- Industriaren modernizazioa eta baliabide fisikoen erabilera eraginkorra
- Azpiegitura adimendunak
- Garraio- eta energia-politikak berrikustea
- Industria-politika berria

Lehentasun hauek EBren jarduera politikoa bideratuko dute bere mugen barruan eta baita mugetatik kanpo ere. Nazioarteko lankidetzaren eta aldeaniztasun-gobernantzaren sustapena EU 2020 strategiaren zati izango da, bereziki nazioarteko merkataritza- eta finantza-sistema eraginkorrak, bidezkoak eta arautuak.

Beren egoera berezia kontuan hartuta, estatu kideek bost urteko etorkizunari begira nazio-mailako helburuak zehazteko gonbidapena jasoko dute. Europako Kontseiluak eta Batzordeak horiek betetzeko orduan dauden aurrerapenak ikuskatuko dituzte.



17. Hilabeteko Iruzkina 2009ko Azaroa



• 1. lehentasuna: ezagutzan oinarrituz balorea sortu

Ezagutza hazkunde jasangarriaren eragilea da. Aldaketa azkarreko mundu batean, desberdintasuna ezartzen duten faktoreak hezkuntza eta ikerketa, berrikuntza eta sormena dira.

- Ezagutzarako sarbidea pertsona guztientzat

Desberdintasunaren eta pobreziaaren aurka borrokatzeko modurik eraginkorrenetakoa hezkuntza indartzea da, oinarrizko gaitasunak eta eskola uztea murriztuz, ezagutza eskuratzeko bidean inor baztertuta ez dagoela bermatuz.

- Unibertsitateak, ezagutzaren eta hazkundearen benetako eragileak

Inbertsioez gain, erreformak ere beharrezkoak izango dira, eta beharrezkoa izanez gero, finantzatzeko ekintzak, lankidetzak estuagoa, bereziki enpresekiko lankidetzak, eta aldaketari begira jarrera irekiagoa.

- Ikerkuntza alorreko ahaleginak areagotzea

Baliabideak bilduz, lurralde osoan lehen mailako ikerkuntza-azpiegiturak elkarrekin garatuz eta ikerketaren kalitatea hobetuz, munduko onenen artean kokatu ahal izateko. Halaber, ikerkuntzaren onura praktikokoak maximizatu eta azkartu behar ditu enpresei eta ETE europarrei begira, besteak beste, sektore publiko eta pribatuaren arteko elkarte garrantzitsuak garatuz.

- Berrikuntza eta sormenerako baldintza erakargarriagoak

Ezagutzan oinarritutako enpresen hazkuntzaren neurri pizgarriak aurreikusiz, industria sortzaileek euren enpresa-ereduari egokitutako finantziario-mota berriak behar dituzte. Halaber, enpresa berritzaileek sektore publikoak eta pribatuak parte hartzen duten hazkunde-kapitalaren iturrietara sarbidea eduki beharko lukete, esaterako, arrisku-kapitalera.



17. Hilabeteko Iruzkina 2009ko Azaroa



- Anbizio handiko agenda digitala

Ekonomia digitalak aukera handiak eskaintzen dizkie ETEei, bai produkzioaren sektorean eta baita zerbitzuen sektorean ere, titulu propio gisa nola enpresen hornitzaile gisa. Bestalde, anbizio handiko agenda digital europarra Europaren susperraldi ekonomiko jasangarriaren eta gizarte garapenaren oinarritzko elementua da. Modu horretan sortutako produktibitatea handitzeak berrikuntza eta sormena sustatuko ditu, zerbitzu publikoak erraztu eta eraginkorrago bilakatuko ditu, eta parte-hartze eta adierazpen demokratikorako aukera gehiago eskainiko ditu.

Internetarako sarbidea gero eta beharrezkoagoa da herritarrek eguneroko bizitzan betebeteen parte hartu ahal izateko. Inklusioari dagokionez, politika eraginkorrak eta gaitasun digitalak behar ditu Europak, eta sarean parte-hartzea eta adierazpen aktiboak sustatu behar ditu.



17. Hilabeteko Iruzkina 2009ko Azaroa



• 2. lehenetsuna: gizarte inklusiboetan herritarren papera indartu

Europaren ekonomia-hazkundearen eta produktibitate-hazkundearen elementu nagusia gaitasunak dira, enplegua sortzearekin batera. Horrekin batera, kultura ekintzaileagoa eta enplegu desberdinen arteko trantsizio arinagoa elementu erabakigarriak dira.

- Enplegu berriak, gaitasun berriak

Krisiaren ondorengo ekonomian, gaitasun berriak eskatuko dituzten enplegu berriak sortuko dira. Europaren ekonomia-hazkundearen eta produktibitate-hazkundearen elementu nagusia gaitasunak dira, enplegua sortzearekin batera.

Eta beharrezkoa izango da enplegu desberdinen arteko trantsizioa kudeatzea, alde batetik, lanaren eta harremanen antolakuntzari dagokionez lan-merkatuen malgutasuna, eta bestetik, bizitzan zeharreko ikaskuntza eta gizarte-babes egokiak eskaintzen duten segurtasuna indartuz.

- Bizitzan zeharreko ikaskuntza

Bizitzan zeharreko ikaskuntza enpleguen eta lanbideen arteko trantsizio egokia eta giza kapitala galtzea dakarren iraupen luzeko langabezia saihestea bermatze aukera ematen duen ezinbesteko elementua da.

Bizitzan zeharreko ikaskuntza eskuragarriagoa izan behar da eta unibertsitateak ezohiko ikasleei begira irekiagoak izan behar dira.

- Gizarte-babes egokia

Errentaren osagarriaren eta aldi baterako lanik gabe dauden pertsonen estalduraren maila egokia eskaini ahal izateko, gizarte segurantzak eta pentsio erregimen modernoak behar dira, eta krisiari eta biztanleri europarraren zahartzeari egokituta daudenak.



European Commission
EU 2020

17. Hilabeteko Iruzkina 2009ko Azaroa



- Kultura ekintzaileagoa

Kultura ekintzaileagoa, arriskuak hartzeari begira jarrera baikorragoari nola berrikuntzarako gaitasunari lotuta, dira enplegu berrien oinarriak, halaber, norberaren kontura egindako jarduera bultzatuz.



17. Hilabeteko Iruzkina 2009ko Azaroa



• 3. lehentasuna: ekonomia lehiakorra sortu, konektatua dagoena eta ingurumenarekin arduratsuagoa dena

Klima-aldaketari eta energiari dagokionez helburuak betetze aldera, industriaren oinarria finkatzea planteatzen da; hori gauzatzeko, azpiegitura adimendunak garatzea eta ETEen indarra aprobetxatzea planteatzen da, modu horretan produktibitatea handituz eta baliabideen gaineko presioa murriztuz.

- Industriaren modernizazioa eta baliabide fisikoen erabilera eraginkorra

Arduratsuagoa den ekonomiak eta industria berrien sorrerak Europan dauden industria-sektoreen modernizazioa azkartzen dute, euren berregituraketa-prozesua lagunduz.

Produktibitatea hobetuz eta baliabideak, bereziki energia, modu eraginkorragoan erabiliz, eta ingurumenarekin arduratsuagoak diren teknologia berriak aplikatuz, enplegu eta zerbitzu berriak sortuko dira. Horiek, manufaktura-oinarri sendoa eta zerbitzuen sektore dinamikoa mantentzen eta ingurumenaren eta klimaren helburuak erdiesten lagunduko diote EBri.

- Azpiegitura adimendunak

Azpiegituren modernizazioa eta interkonexioa eta merkatu bakarrean sareko industrien lehiakortasun eraginkorra, lehiakortasuna hobetzeko ezinbesteko elementuak dira, eta aldi berean, kontsumitzaileei onura nabarmenak ekartzen dizkiete.

Abiadura handiko Internet (zuntz optikoko sareak eta hari gabeko banda zabala) garatzea eta garraio eta energiaren esparruetan azpiegitura adimendun eta modernoak garatzea, helburu ugari betetzeko lagungarri izango dira. Horien artean, deskarbonizazioa, garraioaren segurtasuna, energia-horniduraren segurtasuna eta sareko ekonomiaren lehiakortasuna.

17. Hilabeteko Iruzkina 2009ko Azaroa



- Garraio- eta energia-politikak berrikustea


Garraio-politika berrikustearen ezinbesteko elementuak hauek dira: sareen integrazioan hobekuntza, errepideko garraioari zuzendutako alternatiben garapena, teknologia garbien sustapena eta azpiegituren modernizazioa.

Halaber, iturri berriztagarrietatik sortutako elektrizitatea handitzea, energiaren eraginkortasuna hobetzea eta Europaren energia-autonomia indartzea planteatzen da.

- Industria-politika berria

Industria-politikaren alorrean planteamendu berria egitea, munduko merkatuetan EBren lehiakortasuna mantentzeko beharrezkoak diren jasangarritasuna, berrikuntza eta giza gaitasunak azpimarratuz.

Eta enpresa-espirtua garatzeko, ETEen garapena sustatzeko eta euren hazkunde- eta naziartekotze-indarra laguntzeko baldintzarik egokienak bultzatuz.



17. Hilabeteko Iruzkina
2009ko Azaroa



Informazio gehiago

Web-orria:

<http://ec.europa.eu/eu2020/>

Dokumentua:

http://ec.europa.eu/eu2020/pdf/eu2020_es.pdf

Kontsulta:

http://ec.europa.eu/dgs/secretariat_general/eu2020/consultation_en.htm

